

chulioz zan asi,
 atzaparretatikan
 ziyon noiz nai utzi;
 eta abiyatzian
 ostera igasi,
 berriro atzaparka
 berari eutsi.
 Bañan alako batez
 jarri zan begira,
 fidandean katua
 beste alderdira;
 ta berriz zanerako
 bereganuntz jira,
 saguak igas egīñ
 ziyon mai-azpira.

.
 Azkar askori ere
 modu bere ontan,
 igas egīñ oidiyo
 lapurrik askotan;
 irudituagatik
 daudezela lotan,
 esná egoten dira
 bada geyenetan.

Usoa.

Uso bat nai bezela
 biritutzen zana,
 izanikan echian
 jankai naizan dana,
 aldendu zan kanpora
 goiz batez esanaz:
 «Aspertua nago ni
 emengo jan danaz,
 nayago det kanpuan
 gauz onak billatu,

eta egun ederra
bakarrik pasatu.
Ala gustora egan
zebillen aidian,
bañan gero noiz-baitez
gosetu zanian,
asi zan zerbait gauza
jateko billatzen,
bañan gustokorikan
topatzten etzuben,
eta ez arkiturik
gauz onik aukeran,
zuben gauz charra janta
ur zikiña eran.

.
Zenbat aldiz guk ere
echeko janari,
aitzakiya ematen
diyogu ugari;
ta kanpuan edozer
gauza charra ere,
jaten degu gustora
aitzakirik gabe.

JOSÉ ARTOLA TA ELIZECHEA.

